

Enpresa Zientzien Fakultateak Bikain ziurtagiri ofiziala lortu du

2009/07/14

Enpresa Zientzien Fakultateak **urrezko Bikain** ziurtagiria lortu du euskera kudeatzeko duen eragatik



Nahiz eta fakultatean hiru hizkuntzatan ikasten den, euskera, gaztelania eta ingelesa, euskera da bere egunerokotasunean darabilgun hizkuntza.

Bikain ziurtagiria, ofiziala, publikoa eta doakoa da eta Eusko Jaurlaritzak luzatzen du. Ziurtagiri honek, enpresa edo erakunde batetan dagoen euskeraren presentzia, erabilera eta kudeaketa aitortzen ditu.

Ziurtagiri hau, ebaluazio bat egin ondoren eskura daiteke, ebaluazio horretan EMEn (Erreferentzia Marko Estandarrean) jasotako itemak zein hizkuntzatan dauden eta nola kudeatzen diren egiaztatu ondoren.

Ebaluazio honetan, lau ardatz aztertzen dira:

1. Erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa
2. Kanpo harremanak
3. Barne harremanak
4. Hizkuntza kudeaketa